

DIRU-ITURRIAK

“Oihu”-ren **helburua**, beste enpresa batzuen ez bezala, ez da dirua lortzea, baizik eta gure bezeroei laguntza bat eskaintzea, ez baitugu etikoa ikusten horrelako ekintza baten truke dirua lortzea. Laguntza hau eraso matxistei aurre egitean eta bide batez biolentziarik gabeko gizarte baten alde egitean datza: irabaziak bigarren plano batean uzten ditugu.

Proiektu hau burutzeko beharrezko **diru-sarrerak** ez ditugu zerbitzuaren bidez zuzen lortuko, dohainik baita; hau da, enpresa diru laguntzei esker finantziatuko da soilik, Eusko Jaurlaritzak emango dizkigunak. Emakumearen Euskal Erakundea izango da, zehazki, laguntza hau emango diguna, zeinak Euskal autonomia-erkidegoko emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko xedea duen. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogun kantitatea, kostuen kantitatearen araberakoa izango da; hau da, lehenengo hilabetean eskatuko diogun diru kantitatea, hil horretan izango ditugun kostuen araberakoa izango da: lehen hilabetean 7073€-ko gastuak izango ditugunez, 7100€-ko diru-laguntza bat eskatuko diogu. Ez dugu behar baino diru gehiagorik nahi, gure helburua ez baita dirua lortzea, beraz kostuak asetzearekin nahikoa eta soberan izango dugu.



Laburbilduz, eskuratuko ditugun diru-iturriak nahikoak izango dira kostuei aurre egiteko eta gure soldatak jasotzeko; izan ere, Eusko Jaurlaritzak emango digunarekin horiek ordaintzeko soberan izango dugu. Bestalde, gure langileei kredituen bidez ordainduko diegunez, dirua aurreztuko genuke. Zehazki, arestian aipatu bezala, gure lehenengo hilabeteko diru-sarrerak 7100€-koak izango dira.

HILABETEA	1	2	3	4	5	6
Kostuak	7073€	6415€	6415€	6415€	6548€	6415€
Diru-iturriak (Diru laguntza)	7100€	6415€	6415€	6415€	6548€	6415€

HILABETEA	7	8	9	10	11	12
Kostuak	6415€	6415€	6548€	6415€	6415€	6415€
Diru-iturriak (Diru laguntza)	6415€	6415€	6548€	6415€	6415€	6415€

